

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK. 2020

(Ohar hau berrikusi egin da, lehen mailako datuen tratamenduan izandako akats baten ondorioz)

Euskal AEko administrazioetako zerga bidezko diru-sarrerek % 8,7 egin dute behera 2020an, osasun-krisialdia bereizgarri izan duen urtean

Finantza-erakundeekiko epe luzeko zorra 2020ko abenduaren 31n 12.587 milioi eurokoa izan da, BPGren % 17,6koa

2020an, pandemiaren krisialdiko lehen urtean, Euskal AEko administrazioek –Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udal-administrazioek eratzen dituzte–, haien erakunde autonomoekin eta udalaz gaindiko eta azpiko erakundeekin batera, zerga bidezko diru-sarreretan % 8,7ko jaitsiera erregistratu dute, Eustatek dituen datuen arabera.

Zerga bidezko diru-sarreraren jaitsiera horrek finantzaz bestelako eragiketen bidezko diru-sarreraren jaitsiera ekarri du (% 5,3ko jaitsiera). Finkatutako diru-sarrerek –19.671 milioi eurokoak izan dira–, guztira, bilakaera positiboa izan dute; % 3,4 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta, diru-sarrera finantzarioen hazkuntzak konpentsatuta. Bestalde, gastuak 18.746 milioi eurokoak izan dira; % 2,3 egin dute behera, 2019aren aldean.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua (milaka euro). 2019-2020

	2019	2020	Gehikuntza (%)
SARRERAK GUZTIRA	19.021.597	19.670.829	3,4
ERAGIKETA ARRUNTAK	17.744.597	16.779.468	-5,4
Zerga-sarrerak	16.193.421	14.785.737	-8,7
PFEZ	5.736.020	5.697.121	-0,7
Sozietate-zerga	1.355.146	1.091.926	-19,4
BEZA	6.033.589	5.224.239	-13,4
ZERGA BEREZIAK	1.641.430	1.364.935	-16,8
Udal zergak	763.648	766.319	0,3
BESTE ZERGA BATZUK	663.588	641.196	-3,4
Bestelako sarrera arruntak	1.551.176	1.993.732	28,5
KAPITAL ERAGIKETAK	150.725	173.315	15,0
ERAGIKETA EZ-FINANZARIOAK, GUZTIRA	17.895.322	16.952.783	-5,3
FINANTZA ERAGIKETAK	1.126.274	2.718.046	141,3
GASTUAK GUZTIRA	19.186.225	18.745.944	-2,3
ERAGIKETA ARRUNTAK	15.267.188	15.903.803	4,2
Pertsonal gastuak	3.934.114	4.050.572	3,0
Transferentzia arruntak	5.291.677	5.639.082	6,6
Beste gastu arrunt batzuk	6.041.396	6.214.149	2,9
INBERTSIOAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	1.728.199	1.557.252	-9,9
ERAGIKETA EZ-FINANZARIOAK, GUZTIRA	16.995.387	17.461.055	2,7
FINANTZA ERAGIKETAK	2.190.838	1.284.890	-41,4
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.477.409	875.666	-64,7
AURREKONTUSALDO EZ-FINANZARIOA	899.935	-508.271	-

Data 2022ko Ekainaren 24a

Iturria: Eustat. Sektorre Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak

Eragiketa ez-finantzarioetan oinarrituta, diru-sarrerek bilakaera negatiboa izan dute $-5,3\%$ egin dute behera, eta gastuek $2,7\%$ egin dute gora, 2019arekin alderatuta. Emaiza Aurrekontuko Saldo Ez Finantzarioan ageri da; negatiboa izan da, 508 milioi euroan, 2020an, eta 900 milioi euro positibo, 2019an.

Bestalde, **finantza-eragiketen** analisiari dagokionez, kontrako bilakaerak ikusten dira diru-sarrera eta gastuen artean; izan ere, diru-sarrera finantzarioak 2.718 milioi eurora iritsi dira ($+141,3\%$), eta gastu finantzarioak 1.285 milioi eurora, alegia, $41,4\%$ ko jaitsiera aurreko urtearekin alderatuta.


Diru-sarrera ez-finantzarioek bilakaera negatiboa izan dute ($-5,3\%$), funtsean diru-sarrera arruntek izan duten jaitsieraren ondorioz ($-5,4\%$); diru-sarrera guztien $86,2\%$ izan dira. Kapital-eragiketen araberrako diru-sarrerek $-15,0\%$ eko igoera izan dute.

2020an, COVID 19ak kolpatu duen urtean, **zerga bidezko diru-sarreraren** datuek portaera negatiboa izan dituzte, ekonomiaren sektoreetako ezohiko jarduerarekin lotuta. Hala, partida honek $-75,2\%$ hartu du beheranzko baterako tasa izan du, $8,7\%$ koa.

Zerga-beherakada handienak sozietateen gaineko zergak eta zerga bereziek ekarri dute, $19,4\%$ eta $16,8\%$ beherakada izan baitituzte. Hala ere, PFEZ eta BEZa dira pisu gehien dutenak, $38,5\%$ eta $35,3\%$ ekarpena egiten baitiote guztizkoari. BEZari dagokionez, kontzeptu horrengatik diru-sarrerek $13,4\%$ egin dute behera, 2019aren aldean, eta PFEZk beherakada txikia izan du ($-0,7\%$). Beste zerga batzuen ondoriozko diru-sarrerek ($4,3\%$ ko pisua) $3,4\%$ egin dute behera.

Bilakaera positiboa izan dute udal-zergeak ($0,3\%$ egin dute gora), baina zergen $5,2\%$ baino ez dira.

Euskal AEko administrazioen zerga-sarreraren banaketa (2020)



Eustat. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

Beste diru-sarrera arruntak –tasak, transferentziak eta ondare diru-sarrerak jasotzen dituzte, besteak beste– eragiketa arruntengatik diru-sarrera guztien $10,1\%$ izan dira, eta $28,5\%$ eko igoera izan dute.

Gastu arruntei dagokienez, $4,2\%$ ko igoera izan dute. Igoera hori, nagusiki, Transferentzia arrunten partidak eragin du; izan ere, gastu guztiei dagokienez $30,1\%$ eko pisua izanik, $6,6\%$

igoera izan du, 2019aren aldean. Bigarrenik, langileen gastuen partidak; izan ere, gastu guztien gainean % 21,6ko pisua izanik, % 3,0 egin dute gora. Azkenik, Beste gastu arrunt batzuek % 2,9 egin dute gora.

Bestalde, **Inbertsio eta kapital-transferentzietako** gastuak gastu osoaren % 8,3 izan dira, eta % 9,9ko jaitsiera erregistratu dute, 2019aren aldean.

Erakundeen arabera, Eusko Jaurlaritzak 638 milioiko aurrekontu-saldo ez-finantzario negatiboa erregistratu du. Lurralde-mailako administrazioen artean (foru-aldundiak eta toki-erakundeak), Gipuzkoa da saldo negatiboa duen lurralde bakarra, 24 milioikoa, aldundiaren beraren eta haren erakunde autonomoen saldoen (-18 milioi) eta gainerako tokiko erakundeen ondorioz (-6 milioi). Beste bi lurraldeek saldo positiboak izan dituzte, baina 2019an baino moderatuagoak.

Euskal Administrazioen datu finkatuak (milaka euro). 2020

	Guztizko bateratua	Eusko Jaurlaritza	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
SARRERA ARRUNTAK	16.779.468	10.150.450	2.587.644	8.217.996	5.234.308
GASTU ARRUNTAK	15.903.803	10.010.845	2.484.988	7.784.671	5.034.227
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	875.666	139.605	102.656	433.325	200.081
KAPITAL-SARRERAK	173.315	69.941	30.500	48.730	47.310
KAPITAL GASTUAK	1.557.252	847.129	129.134	332.778	271.377
AURREKONTU SALDO EZ-FINANZARIOA	-508.271	-637.583	4.022	149.276	-23.987
ZOR BIZIA (20-12-31 amortizatzeke)	12.587.106	10.062.027	597.442	1.530.102	397.535

Data 2022ko Ekainaren 24a

Iturria: Eustat. Sektoare Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak

Zor bizia (erakundeek finantza-erakundeekin epe luzera dituzten maileguen ondorioz ordaintzeko duten **zorra**), 2020ko abenduaren 31n, 12.587,1 milioi eurokoa izan da, BPGren % 17,6. 2020ko pasibo berriak 2.662,7 milioikoak izan dira, eta amortizazioak, 1.007,2 milioikoak.

2020aren amaieran amortizatzeke zor bizi osotik, Eusko Jaurlaritzarena % 79,9 da, Bizkaiarena % 12,2, Gipuzkoarena % 3,2 eta Arabarena gainerako % 4,7a.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62